

IZTUETAREN ESAN BAT.



Mundu guztiak daki Euskal-errian, zéñen euskaldun ona zan Iztueta; mundu guztiak daki, ere, zér liburu ederrak izkribatu zituen gure probinzi Gipuzkoa-ren izaera kondairatuaz, eta lur maite ontako dantza zar antziñakoak zér nola dantzatu bear ziran esanaz.

Gauza jakiña da, ala berean, dantza zar oetarako griña aundia izandu dala Euskal-lurrean antziña-antziñako denboretatik; eta bérak dantzatzeko, gizaldi ontan izandu diran maisurik onenetako bat Iztueta zala.

Bañan askok ez dakitena, noski, da Iztuetak bere azkenengo orduetan zeukan sosegua eta erriko oituren oroitza. Orregatik, ongi izango da emen agertzea, Zaldibiako errian, bertako bi seme euskera-zaleen artean gertatu zan au:

Bi euskerazale oetatik bat zan Iztueta; bestea, Lardizabal, apaiz jaun birtutetsua eta euskal-liburu ederren egillea.

Zegoen Iztueta eriotza gañean zuela; eta Lardizabal, berari ongi iltzen laguntzeko, aldamenean; eta aditurik onek ansiaz ari zala isildu gabe Iztueta gizagajoa, galdetzen dio:

—Juan Iñazio ¿zér dezu? ¿penaren bat al-dezu, orrela ansiaz ari-zeko?

—¿Zér dedan esaten dit, jauna? ¿Nola nai ez du penatzea, ni ill ez-kero ezpada gelditzen Euskal-erriko plazak dantzan onratuko dituen gizon bat?

